

Andre kalea

Hernaniko alde zaharrea, Kale Nagusiaren albo batean, 2014. urteaz geroztik Andre kalea izena daraman kalea dago. Emakumeek Hernaniko herrian izan duten presentzia aitortu eta emakumeak errekonozitzeko helburuz egin zen aldaketa.

Ahozko transmisioari esker jakin, badakigu, lehenengo Urumea eta ondoren Kardaberaz izenez ezaguna zen kalea, hernaniar askorentzat Andrekale gisa zela ezaguna. Agiri historikoetan ere bada Andre kaleren arrastoren bat edo beste.

Alde zaharreko kale honek zituen berezitasun sozio-kulturaletan dago Andre kalea izenaren arrazoa eta jatorria, uste baita karrika honetan bildu eta bertan egiten zutela bizitza soziala garai bateko hernaniar emakumeek. Hainbat azalpen daude horren atzean, besteak beste: arropa garbitzaile askoren bizitokia zela diote, eta, beraz, herriko dirudunak Andre kalera joaten zirela arropa-garbitzaileei beren jantziak uztera, Leokako garbitokian garbi zitzaten. Era berean, garai batean, ohitura handia zegoen aulkiak etxetik jaitsi eta kalean esertzeko, konpainian, josteta lanak edo bestelakoak egiteko eta Andre kalea gune aproposa zen emakumeen ofizioetarako. Lana egiteaz gainera, ohikoak ziren, gerora, emakumeen arteko berriketaldiak eta jolasak. Horrexegatik, gerora, Urumea kaleko festa antolatzerakoan, emakumeen arteko karta jolasa berreskuratu zuten.

Arkitektonikoki ere badira kalearen izendapena azaltzen duten arrazoiak, izan ere, bi atariko etxeak dira nagusi Hernaniko alde zaharrea, eta horrek “gune publikoa” eta “pribatua” bereizita mantentzea errazten du. Herritarren arabera, baliteke generoaren araberrako kaleen banaketa egon izana; gainera, baliteke generoaren araberrako kaleen banaketa egotea; hau da, Kale Nagusia, dotoreena, gizonezkoena, Andre kalea emakumeena eta Antzieta kalea animaliena, bertan egiten baitzen animalien azoka.

Ziur, arrazoi guztiek badutela egiatik eta, kale izenaren arrazoa bata ala bestea izan, agerikoa da garaiko jendartearen aztarna bizia dela Andre kalea. Karrika horretan emakumeek izan zuten presentziaren lekuko da Andre kalea eta emakumeen historia ezagutu eta azaleratzeko bide eman du. Izan ere, Hernaniko emakumeen oroimen historikoa berreskuratzeko lehen urratsa izan da. Kaleaz gainera, izen bera daraman dokumentala ere ekoiztu zen, hernaniar emakume askok parte hartu zuten proiektua izan zen gainera.